

ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEA, D TALDEA

1. ariketa.

1. proba

Galderak: 28.

Denbora, gehienez: 50 min.

EREDUA:	C
---------	---

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Hutsegiteak: - 0,33
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: - 0,00
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez ahaztu orri horia eta argibide-orria zeurekin eramatea.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

1- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa, Konstituzioaren arabera,...

- A) - herritarren betebeharrak bat da.
- B) - Eskubide bat da.
- C) - Politika sozial eta ekonomikoa gidatu behar duten printzipioetako bat da.
- D) - Ez dago berariaz jasoa.

2- Konstituzioaren arabera, komunikazioen sekretua bermatzen da, eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefono bidezkoena...

- A) - Beti eta kasu guztietan.
- B) - Inoiz ez.
- C) - Beti, agintaritzaren ebazpen arrazoitua izan ezean.
- D) - Beti, ebazpen judiziala izan ezean.

3- Bilkurak egiteko alde aurretiko baimena...

- A) - Jendearen igarobide diren lekuetan egiteko diren bilkuretarako erreserbatzen da.
- B) - Era guztietako bilkuretarako behar da.
- C) - Inoiz ez da beharrezko.
- D) - Ordena publikoaren inguruko arrazoi sendoak daudenean baino ezingo da ukatu (pertsonek eta ondasunak arriskutan egon daitezkeenean).

4- Negoziazio kolektiboa, Konstituzioaren arabera...

- A) - Gatazka kolektiboek konponbidea aurkitzeko egingo da.
- B) - Langileen eta horien enpresariengatik artean egingo da.
- C) - Lan-agintariek berretsi beharrekoa da.
- D) - Langileen ordezkarien eta enpresariengatik artean egin behar da.

5- Hirigintza-espekulazioa galarazteko, hauxe egin behar dute botere publikoek, Konstituzioaren arabera:

- A) - Lurzoruaren erabilera arautu.
- B) - Lurzoruaren eta etxebizitza-sustapenaren merkaturaren integratu.
- C) - Beren hirigintza-jarduerek sortzen dituzten plusbalioetaren parte hartu.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

6- Ondoko eskubideetatik, zein utzi daiteke bertan behera, oro har, setio-egoeran?

- A) - Parte-hartzeko eskubidea.
- B) - Babes judizialerako eskubidea.
- C) - Biltzeko eskubidea.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

7- Ohore epaimahaiak, administrazio zibilaren eta erakunde profesionalen esparruan,...

- A) - Itzal handiko pertsonak osatzen dituzte.
- B) - Herritarren bati ohorezko tratamendu edo sariren bati emateko biltzen dira.
- C) - Debekatuta daude.
- D) - Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen dira.

8- Gertatu ziren unean delitu edo hutsegite ez ziren egintza edo ez-egiteengatik ez dago inor kondenatzerik; hau da, halakotzat joak ez bazituzten ordurako...

- A) - Ohiko epaitegiek.
- B) - Araudiek.
- C) - Zuzenbidearen printzipio orokorrek.
- D) - Indarrean zen legediak.

9- Konstituzioaren arabera, noiz dira adinez nagusi espainiarrak?

- A) - Hamalau urte betetzean, gurasoek emantzipatzen badituzte.
- B) - Hemezortzi urte betetzean.
- C) - Hogeita bat urte betetzean.
- D) - Hamasei urte betetzean.

10- Espainiar guztiak dute gastu publikoari aurre egiten lagundu beharra...

- A) - Beren diru-sarreraren erdia emanez.
- B) - Beren urteko diru-sarrera gordinen ehuneko hamar emanez.
- C) - Beren urteko diru-sarrera garbien ehuneko hamar emanez.
- D) - Zeinek bere ahalmen ekonomikoaren arabera.

11- Konstituzioaren 10. artikulua arabera...

- A) - Pertsonek duintasuna, dagozkion eskubide bortxaekin, norberaren nortasunaren garapena eta legezaren nahiz beste eskubideekiko errespetua ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira.
- B) - 18 urte betetzean dira adinez nagusi espainiarrak.
- C) - Bizilekua bortxaekina da.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

12- Zeren menpe daude herritarrak eta botere publikoak?

- A) - Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren menpe.
- B) - Konstituzioaren menpe.
- C) - Gobernuaren menpe.
- D) - Botere judizialaren menpe.

13- Ondokoetatik, zein ez da espainiarren oinarriko eskubidea?

- A) - Elkartzeko eskubidea.
- B) - Greba egiteko eskubidea.
- C) - Gurtze askatasunerako eskubidea.
- D) - Interes nazionalak defendatzeko, armak aldean hartuta, biltzeko eskubidea.

14- Zein ez da udalerraren elementuetako bat?

- A) - Populazioa.
- B) - Administrazioa.
- C) - Lurraldea.
- D) - Antolaketa.

15- Nola izan daiteke udalerraren izena?

- A) - Gaztelaniaz bakarrik.
- B) - Gaztelaniaz edo autonomia erkidegoan ofiziala den hizkuntzan, edo bietan.
- C) - Gaztelaniaz edo autonomia erkidegoan nahiz Europar Batasunean ofizial den beste edozein hizkuntzatan.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

16- Nola hautatzen dira zinegotziak?

- A) - Sufragio unibertsal, aske, zuzen, berdin eta isilpekoaren bitartez.
- B) - Sufragio unibertsal, aske, proportzional, berdin eta isilpekoaren bitartez.
- C) - Sufragio unibertsal, aske, zuzen, berdin eta publikoaren bitartez.
- D) - Alkateak hautatzen ditu.

17- Hauek osatzen dute Tokiko Gobernu Batzarra:

- A) - Alkateak eta gobernu taldea osatzen duten zinegotziek.
- B) - Alkateak, alkateordeek eta talde politikoaren bozeramaileak.
- C) - Alkateak eta udal taldeen ordezkariak, zinegotzien % 50a gainditu gabe.
- D) - Alkateak eta hainbat zinegotzik, legezko zinegotzi-kopuruaren heren bat gainditu gabe.

18- Udalerriek, berek bakarrik edo besterekin elkarturik, zerbitzu hau eskaini behar dute beti:

- A) - Bidaiarien garraio kolektiborako zerbitzua.
- B) - Bidaiarien garraio kolektiborako zerbitzua, 5.000 biztanletik gorakoak badira.
- C) - Bidaiarien garraio kolektiborako zerbitzua, 50.000 biztanletik gorakoak badira.
- D) - Bidaiarien garraio kolektiborako zerbitzua, 20.000 biztanletik gorakoak badira.

19- Zer dira udalerririk?

- A) - Nortasun juridikorik gabeko toki erakundeak.
- B) - Estatuaren lurralde antolakuntzaren oinarriko erakundeak.
- C) - Beren xedeak betetzeko erabateko ahalmenik gabeko oinarriko erakundeak.
- D) - Herritarrek gai publikoetan parte hartzeko gertuko bideak.

20- Herritarren eskubide eta betebeharrak dira...

- A) - Hautesle eta hautagai izatea, hauteskunde legedian xedatutakoaren ildotik.
- B) - Legez aurreikusitako prestazio ekonomiko eta pertsonalen bitartez udal eskumenak gauzatzen laguntzea.
- C) - Herri-kontsulta eskatzea, legean aurreikusitako moduan.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

21- Tokiko Gobernu Batzarra...

- A) - Udalerri guztietan dago.
- B) - 15.000 biztanletik gorako udalerri guztietan dago.
- C) - 5.000 biztanletik gorako udalerri guztietan dago, baita biztanle gutxiagokoetan ere, bertako araudi organikoan hala xedatu edo udalbatzak hala erabaki badu.
- D) - 5.000 biztanletik gorako udalerri guztietan dago, baita biztanle gutxiagokoetan ere, diputazioak hala erabaki badu.

22- Arrazoitu beharrekoak dira...

- A) - Administrazio-egintza guztiak.
- B) - Aurrekari batetik aldentzen diren egintzak bakarrik.
- C) - Epeak luzatzea berekin dakarten egintzak.
- D) - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

23- Nolakoak izan behar du administrazio-egintzaren edukiak?

- A) - Posible, zilegi, zehatz eta helburuetara egokituia.
- B) - Posible, zilegi, zehatz eta egokia.
- C) - Posible, objektibo, formal eta kausala.
- D) - Objektiboa, zehatza, formala eta kausala.

24- Administrazio-egintza bidegabe bat...

- A) - Deuseztagarria da.
- B) - Erabat deuseza da.
- C) - Irregularra da.
- D) - Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

25- Ezinezko edukia duen egintza...

- A) - Erabat deuseza da.
- B) - Deuseztagarria da.
- C) - Legez kanpokoa da.
- D) - Irregularra da.

26- Jakinarazpena gauzaterakoan inork ezin badu hura bere gain hartu, hala jasoko da dosierrean, eta jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den idatziko. Horrez gain,...

- A) - Beste behin bakarrik egingo da saioa, hurrengo hiru egunetan, beste ordu batean.
- B) - Hiru bider egingo da saioa, beste ordu batzuetan.
- C) - Hiru egun igaro ondoren egingo da berriro saioa, beste ordu batean.
- D) - Gutxienez hiru bider egingo da saioa, hurrengo hiru egunetan, beste ordu batzuetan.

27- Administrazio-xedapenek ondorio juridikoak izan ditzaten...

- A) - Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu behar dira.
- B) - Dagokien buletin ofizialean argitaratu behar dira.
- C) - Autonomia erkidegoko buletinean argitaratu behar dira.
- D) - Nahikoa da jendaurrean jartzearekin.

28- Administrazio publikoaren zerbitzura jardungo duten langileen hautaketa, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legean xedatutakoaren arabera, honela egin behar da:

- A) - Deialdi publikoaren bitartez.
- B) - Lehiaketa, azterketa edo lehiaketa/azterketa aske sistemaren bitartez.
- C) - Lan eskaintza publikoaren arabera.
- D) - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.